


Denbora-


1 Margotu eta asmatu

Baserri eskolara egindako bisitan argazki ugari atera ditu Joanak. Argazkian zer ikusten den asmatzeko, margotu laukiak zehaztutako koloreetan!



2 Aurkitu irudian

Gitarra da Peruren musika tresna gogokoena, eta haien argazkiak jasotzen ditu album batean. Irudian hiru gitarra berdin daude. Zein?




1 Urdin argia. 2 Laranja. 3 Gorria.
4 Horia. 5 Marroia. 6 Arrosa.

3 Osatu hitzak

Marrazkilari aparta da Ainhoa. Irudiak begiratuta, asmatuko al zenuke zer marraztu duen?



RRA-TZA-OR-DA



PI-NAK-TXA




HO-BI-TZA

- pasak

4 Ezberdintasunak

Herriko kale guztietan argazki bakarra ikusten da: Walter sheriff-arena. Argazkiari zazpi aldaketa egin dizkiogu. Zein?



5 Sortu hitzak

Zenbat hitz sor daitezke bederatzi hizkirekin? Saia zaitetz ahalik eta hitz luzeenak osatzen.

Erantzunak: 1.-Oilarra, 3.-Ortzadarra, txapinak eta bihotza.

Karramarroak

Korrikalari fina izateak ez du garrantzirik joko honetan, lagunari lotuta korri egin beharko baituzue. Ezinbestekoa da bien arteko koordinazioa.

1. Jokalariak bikotea jarriko dira, orkatiletik sokaz lotuta. Hala, ezkerretara dagoen jokalaria bere eskuineko orkatila alboko lagunaren ezkerreko orkatilera lotuko du. Soka lotu, eta irteera puntuaren atzean jarriko dira.



2. Irteeratik 10 bat metrora egongo da helmuga. Seinalea entzun orduko, korrika abiatuko da bikotea helmugarantz.



3. Lurrera erortzen den bikotea, estropezu egiten duena edo soka askatzen zaiona irteera puntura itzuli beharko du. Berriro ekin beharko dio lasterketari.

4. Helmugara azkena iristen den bikotea kanporatua gertatzen da. Pixkanaka-pixkanaka, gero eta bikote gutxiago gertatuko dira.



5. Bikotea egin beharrean, bakarka ere jolas daiteke. Kasu horretan, jokalaria bere bi oinak lotuko ditu soka batez.